



bihar

Euskal Hezkuntza
Sistemak bere baitan
jaso behar dituen
oinarrien
ENDEKALOGOA

IKASTOLEN ekarpena



ikastolenkartea

SARRERA HITZALDIA

Hemen elkartu gara 111 ikastoletako ordezkariak. Euskal Herri osoko 111 proiektu, bakoitza bere ezaugarriekin, bakoitza bere berezitasunarekin, baina guztiak helburu eta asmo bakarrarekin: gure herriari dugun onena eman, eta hezkuntzatik gure ekarpena egitea. Anitzak eta ugariak gara, eta horrek aberasten gaitu. Txikiak eta handiak gara, eta horrek zabalago gaitu. Herrikoak eta herrikoiak gara, eta horrek herri egiten gaitu. Dakiguna egiten dugu, gurea: pertsonak hezi eta pertsonekin hazi. Hamarkadaz hamarkada, urtez urte, egunez egun, lanean ari gara, nekerik gabe, hezkuntza proiektu zabal, oso eta handi bat eraikitzen. Gure eskarmentu eta jakintzatik, gure herriaren BIHARKOA eraikitzen laguntzen saiatzen gara, atzo ikasi genuenetik eta gaur egiten dakigunetik.

Baina, ez gara geure buruarentzat ari. Aspaldian esaten ari garen moduan, Euskal Herriak, gure gizarteak, kezkatzen gaitu. Inguruan gertatzen den guztiak arduratzen gaitu, eta ez dugu bazterrerara begiratu nahi, aurrera baizik. Gaur, eztabaidagai ugari ditugu Euskal Herriaren debate publikoan. Horien guztien erdigunean, baieztatu ahal izan dugun moduan, dago Euskal Hezkuntza Sistemarena. Ikastolok, gaur, bete-betean heldu nahi diegu bihar izango ditugun beharrei. Gure ekarpenarekin gatoz, umil eta indartsu, Euskal Herriko eragile eta erakunde guztiekin hitz egitera.

Esan bezala, ugariak eta handiak dira gaur gure herriak dituen erronkak; eta horien artean bada bat, guretzat, oinarri-oinarrizkoa: HEZKUNTZA. Ikastolok, gure komunitateak, gure lan eta jardueraren bidez, hezkuntzak jokatzeko duen papera aldarrikatzen dugu, herriaren zerbitzura dagoen tresna bezala, kontziente garelako gizarte baten hezurdura hezkuntzan eraikitzen dela. Hezkuntza da, besteak beste, herri baten izaera, ezaugarriak, baloreak... lantzeko tresna garrantzitsuenetako bat. Eta, Hezkuntzaz ari garenean, hizkuntzatik haratago doan zerbaiti buruz ari gara. Hezkuntzaz ari garenean, "nolako gizartea nahi dugu etorkizunean?" galderari erantzuten ari gara. Eta, hor, esaten dugu, Europako hezkuntza

esparruan Euskal Herriak hezkuntza sistema propioa izateko eta arautzeko eskubidea behar duela. Euskal instituzioei, hezkuntza komunitateari eta herritarrei dagokie, soilik, hezkuntzaren gaineko erabakiak hartzeko eskumena. Bertatik bertara.

Ez da erraza izango, baina aukera dugu Araba, Bizkai eta Gipuzkoan Hezkuntza Lege berri bat aurrera ateratzeko. Ausardia eskatzen diegu Eusko Jaurlaritzari, alderdiei eta hezkuntza eragileei, gure iritziz, nahi eta behar dugun hezkuntza ereduaren inguruan adostasun sozial berri bat eraikitzeko. Zein da gure herriak behar duen hezkuntza eredia eta zein da horrek eskatzen duen sistema? Egin dezagun indar berezi bat galdera honi erantzun bateratu bat emateko. Izan dadila hori eztabaida zabal eta sakon baten emaitza, denon artekoa eta hemen garatua eta gure hezkuntza sistemak dituen gabezia nagusiei aurre egiteko balioko duena; hastapeneko marra gorririk gabe, elkarlanerako borondatearekin. Gure hezkuntza sistemak eta gure euskarak merezi dute eta.

Horretarako, gure komunitate osoa behar dugun hezkuntza sistemaren alde lanean jartzen dugu. Garen guztia eta dugun guztia horri zor baitiogu, herri ekimenari. Gudan 60.000 ikasleren gurasoek eta milaka irakasle eta langilek ezarritako konfiantza osoa itzuli nahi diogu gizarteari. Gure jakintza, gure antolakuntza gaitasuna, gure berrikuntza pedagogikoa, gure herri ekimen zabalak.... Jartzen ditugu herri honen hezkuntza sistemaren zerbitzura. Gure erantzukizuna ere badela ulertzen dugu, eta gure erantzukizun betetzeko prest gaude.

Datozen hilabeteotan, ikastolaz ikastola, herriz herri, Euskal Hezkuntza Sistema eraikitzeko proposamenak lantzen ibiliko gara. Ekitaldi sorta bat ere osatu dugu. Lan horri ekiteko, 11 oinarriz osatutako Endekalogoia aurkeztuko dugu gaur, horien gainean eraiki behar dela uste dugulako Euskal Hezkuntza Sistema. Herri 1, Hamaika oinarri, 111 Ikastola.

Euskal Hezkuntza Sistemak bere baitan jaso behar dituen oinarrien ENDEKALOGOIA

Euskal Hezkuntza Sistemak izan behar du:

OINARRIZKO PRINTZPIOAK

1.- Unibertsala.

Euskal herritar orori hezkuntza eskubidea bermatuko diona. Bazterketarik gabea arrazoi ekonomiko, politiko edo sozialengatik, nahiz jatorriari edo sexuari lotutako edozein ezaugarriengatik.

2.- Euskara eta euskal kultura ardatz dituena.

Benetako murgiltze eredia gauzatuko duena, oraingo Hizkuntza-ereduek ezartzen dituzten desberdintasunak gaindituta. Ikasle guztiei bermatuko diona euskaraz osotasunean bizi ahal izateko maila, duten abiapuntua dutela, eta bizi diren errealitate soziolinguistikoan bizi direla.

3.- Euskal Curriculumetik eraikia.

Oso-osorik, bertatik bertara eraikitako curriculumean oinarrituko dena. Konpetentzien garapenerako ikasgai zerrenda, metodologia eta kosmobisio propioarekin. Ebaluazio sistema hezitzailea eta hobekuntzara bideratua.

4.- Euskal Herria bere osotasunean landuko duena.

Dagokion lurralde bakoitzeko errealitateak kontuan izanik, osotasun batetik abiatuko dena, errealitate guztien aniztasunari zentzu komuna emango diona. Euskal Herriaren lurralde osoak eragingo diona, eta Euskal Herriko hezkuntza-sistemetako ikastetxeen arteko lankidetzak-hitzarmenak bultzatuko dituena.

HEZKUNTZAK LANDU BEHARREKO BALOREAK

5.- Hezkidetzan oinarritua.

Pertsonen arteko berdintasuna bermatu eta sustatuko duena. Ikasleei tresnak eskainiko dizkiena beren bizitza proiektua aukeratzeko askatasunetik eta aukera-aniztasunetik, genero-baldintzatzailearik gabe, besteak beste kultura, erlijio, gizarte-klase, egoera funtzional eta sexu orientazio bakoitzaren esparruetan.

6.- Laikotasunean heziko duena.

Sinesmen askatasuna bermatzeko, erlijioak, fede gisa, curriculumetik kanpora utziko dituena, ez bada jakintzaren begirada zientifiko hutsez ekiteko.

7.- Ikasleak bere egiten dituen ezaugarrietatik pentsatua.

Ikasleak, euren ikas ibilbidea amaitutakoan, ezaugarri hauek izatera bideratuko dituenak: Euskaldun konprometitu eta eleanitzak; beren buruekiko konfiantzadunak; lankidetzan ikaskideak; erabaki hartzaile kritikoak; ekintzaile gogoetatsuak; jokabide etikodunak; sortzaileak; ikusmira zientifikodunak; orekaren zaintzaileak.

8.- Inklusiboa.

Euskal Herrira etortzen direnen jatorrizko izaera errespetatuta, euskal herritar izateko baliabideak eskainiko dizkiena, eta, aldi berean, euren ekarpenak aberastasun gisa ulertuko dituenak. Jatorri askotariko ikasleak modu orekatuan eskolaratuko dituenak, euren beharrak erdigunean jarrita.

HEZKUNTZAREN ANTOLAKETAZ

9.- Gobernantza demokratikotik antolatua.

Hezkuntza komunitateko kide diren guztien erantzukizun partekatutik bideratua. Ikasle, guraso nahiz langileen hezkuntza prozesuari dagozkion erabaki komunetan eta erantzukizunen banaketan oinarritua.

10.- Ikastetxeei autonomia aitortuko diona.

Tokian tokiko hezkuntza komunitate bakoitzak bere proiektua eraginkortasunez garatu ahal izateko, ikastetxe bakoitzari lanean ari den errealitatean eragiteko baliabide materialak ziurtatuko dizkiona, eta gardentasunez eta autonomiaz giza baliabideak zein materialak kudeatzeko eskumena aitortuko diona.

11.- Publiko-herritar eredutik sortua.

Euskal gizartearen izaera parte-hartzaile eta kolektiboan oinarritua, publikotasun eredu berria eraikiko duena, titulartasunari baino, publiko-herritar harremanari kasu egingo diona. Irabazi asmorik gabeko herri proiektuak, gizarte ekonomian kokatuak, hezkuntzaren arloan ongizate-estatuaren oinarritzko helburuekin bat egiten dutenak, sistema publikoaren partetzat hartuko dituenak.

*2021eko otsaila
Ikastolen Elkarte*

HITZATZEA

Gaurtik da bihar

Biharko mundua galdera berriak egiten ari zaigu gaur. Hizkuntza anitzetan ari zaigu galdez, jatorri askotako umeen begiradarekin, neskatxak mutikoez besteko jakinminez eta ekingosez. Lan, gizarte zein politika arloko etorkizun aldakorrei erantzuten ere hasi behar dugu oraindixe, gainera. Eta begiratu, bestalde, itsasoei, mendiei eta zeruei. Gu izarrei galdezka ari garelarik, gure planeta da itaunka ari zaiguna guri. Bihar zer.

Elkarrekin ikasteko garaiak dira. Gaur elkarri galderak eginez eta elkar entzunez, denon artean, biharko erantzunak bilatzeko garaiak.

Zuk, adibidez, zer hezkuntza eredu nahi zenuke bihar hasi behar bagenu?

Zure haurra lehen aldiz ikastetxe batera eraman behar bazenu bihar, adibidez. Edo irakasle moduan bihar bertan eman beharko bazenu lehenengo eskola. Edo zure herrian hezkuntza eragileen arteko lankidetzak egitasmo bat abiatu behar bazenute, bihar ez bada etzi.

Tarteka gure buruari egin beharreko galderak dira. Garaiotan, adibidez. Gehiago itxaron gabe. Denborak ez baitu etenik. Gaur hasten da bihar.

XXI. mendeko euskal hezkuntza eratzen ari gara. Erantzukizun handia da.

Biharko erantzun horiek emateko, gaurko galdegai orokorrak beharko ditugu. Begirada nazionala. Eta baita begirada partikularrak ere, herriz herri, zer ari garen ondo egiten eta zein zailtasun ditugun ezagutzeko.

Horixe da guk, euskal herrietako ikastolok, Euskal Herriko ikastolok, gaur partekatu nahi dugun gogoeta: herri bat, hamaika oinarri hezkuntza sistema adosteko, eta ehun eta hamaika tokian tokiko helburu.

Gure bururik mugatu gabe, gainera, harago begiratu beharko dugu. Biharko mundua eratzen ari diren gaurko hezkuntza eredu europarrak aztertu.

Jendarte osoa da gaur guztion seme-alaben hezkuntzaren arduradun, jendarte osoa izango baita onuradun bihar. Eskola, hezkuntza formala, ezinbestekoa da, baina ez bakarra. Hezkuntza ez arautua, etxea, aisialdia eta eguneroko harremanak eta bizimodua ere nahitaezkoak dira.

Gaur, politika publikoak ikastetxe sare ezberdinekin ez ezik tokiko zein nazio mailako eragile sozial ugariekin nola saretu ideiatzea ere badagokigu, bihar eraginkoragoak, eraldatzaileagoak eta onuragarriagoak izateko.

Has gaitzen.

Gaurtik da bihar.